

IRAKURMENA

3. TESTUA

Anjel Lertxundik Berrian idatzitako iritzi-artikulu bat irakurriko duzu.

1. egitekoa

Irakurri testua eta alboan dituzun aukeretatik (A, B, C) idazlearen **iritzia** ongien adierazten duena aukeratu. Idatzi letra beheko laukian.

Ez daude ketan

Astero bisitan joaten naizen zahar-etxean taberna eder bat dute. Orain mahai batean, gero bestean, bertako zaharrek bisitak egiten dizkiote elkarri, mahaietako bakoitza etxe bat balitz bezala eta mahaien arteko bidexka, kale nagusia. Mundualdiaren azken etapan, munduan egoteko modu bat dute taberna; mundutik aparte egon arren, ez daudela hain aparte sinesteko modu bat.

Batzuek erre egiten zutenez gero, ketan egoten zen giroa. Orain aparteko gelatxo bat jarri diete erretzaileei. Zortzi bat dira, eta hantxe ikusten ditut, aulki soiletan eserita eta mahairik gabe, zigarroei ateratzen dizkieten ke-bilurrei begira. Isilik, mundutik bigarren aldiz apartatu dituztelako seguru asko. Tabernako giroa ere asko isildu da erretzailerik gabe.

Ketan egotea gustura egotea da euskaraz. Erretzaileak ketan daude, baina ez atseginez. Kerik gabe daude tabernakoak, baina ez zoriotsuago.

Anjel Lertxundi

Berria 2006/01/15



Zein da idazlearen **iritzia**?

- A. Zahar-etxeko tabernan, erretzaileak bereizi dituztenez geroztik, gusturago daude tabernan geratu direnak, baina ez aparteko gelatxoan jarri dituzten erretzaileak.
- B. Zahar-etxeko tabernan, erretzaileak bereizi dituztenez geroztik, tabernan geratu direnak ez daude lehen bezain alai, nahiz eta orain osasuntsuago egon.
- C. Zahar-etxeko tabernan, erretzaileak bereizi dituztenez geroztik, ez da ezer aldatu, orain kea beste leku batera eraman dutela besterik ez.

Aukera ezazu erantzun zuzena eta idatzi **letra** laukian: